



Pandemia dela-eta, bi urtez zerbitzua eman gabe egon ondoren,

UDALAK BERRIRO ATERA DITU LEHIAKETARA HIRIKO HIRU HONDARTZETAKO TOLDOAK

Gobernu Batzordeak laster onartuko ditu datorren udako hiriko toldoak, karpak eta itzalkinak esleitzeko lehiaketa arautuko duten oinarriak. Zerbitzu hori ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean emango da.

Hiri Mantentzeko zinegotziak, Miguel Ángel Díez sozialistak, azpimarratu duenez, “toldo-zerbitzua bi urte igaro ondoren itzuli da. Urte horietan, osasun-krisiaren ondorioz, ez zen komeni toldoak jartzea, segurtasun-arrazoiengatik eta pertsonen artean gomendatzen zen distantziagatik. Pandemia kontrolatuta dagoela dirudien honetan, eta normaltasuna hiriaren eguneroko jardunera itzultzen ari denez, uste dugu datorren udan Donostiako hondartzetan toldoak, karpak eta itzalkinak eskaintzeko moduan gaudela, betiere osasun publikoko baldintzek ezin hobeak izaten jarraitzen badute”.

1.400 toldo zozkatuko dira. 440 Kontxako hondartzarako (horietatik 8 egokituta daude); 424 toldo (12 egokituta daude), 98 karpa eta 198 itzalkin Ondarretako hondartzarako, eta 240 toldo (8 egokituta daude) Zurriolako hondartzarako.

Toldo horiek zozketa bidez esleitzeko dira, 3 urterako. Urtero dagokion tasa ordainduko dute esleipendunek, Udalbatzak onartzen dituen zerga-ordenantzetan jasoa.

Prentsa oharra

Nota de prensa



>>> INSKRIPZIOAK >>> urtarrilaren 24tik otsailaren 11ra

Adin nagusiko guztiek eska dezakete toldo bat, Donostian bizi diren ala ez alde batera utzita. Etxebizitzako, izen-emate bakarra onartuko da.

Ezin izango da telefonoz izena eman; webgunearen bidez edo, sailaren bulegoetan, aurrez aurre, egin beharko da. Inskripzioa egitean, 100 euroko fidantza ordaindu beharko da. Izen-ematea web bidez egiten bada, une horretan bertan ordaindu beharko da fidantza banku-txartelarekin, eta aurrez aurre egiten bada, dagokion zenbatekoa igorriko zaie izena eman dutenei. Bi kasuetan, fidantza itzuliko zaie zozketan sarituak izan ez badira.

Inskripzio-eskaeran adierazi behar dute zer hondartzatan eduki nahi duten toldoa. Udalaren webgunean, plano baten bidez, hondartzetako sektoreak ikusi ahal izango dira, toldoa aukeratu ahal izateko. Behin inskripzioa amaituta, ezin izango da toldoaren lekua aldatu. Gainera, Donostian erroldatuta ez daudenek NANA aurkeztu beharko dute izena emateko unean.

Eskatzaile bakoitzari erreserba-zenbaki bat emango zaio, eta horrek, NANarekin batera, zozketaren prozesua ezagutzeko aukera emango du.

Guztira 28 toldo daude desgaitasuna egiaztatua duten pertsonentzat erreserbatuta, gutxienez A, B edo 7. mailako mugikortasun urriko baremoak dituztenentzat. Eskatzailea adingabea bada, gurasoek familia-liburua aurkeztu beharko dute, eskaera adinez nagusi baten izenean egin dadin. Legezko beste tutore bat badago, hori egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko da.



>>> ZOZKETA >>> martxoaren 18a

Izena emateko epea amaitu ondoren, martxoaren 15ean, zenbaki bat esleituko zaie, ausaz, izena eman dutenei. Zenbaki hori posta elektronikoz jakinaraziko zaie eskatzaileei, eta web-aplikazioaren barruan bakoitzaren profilean ere jarriko da.

Zozketa-egunean, martxoaren 18an, zenbaki bat aterako da, eta zenbaki horrek ezarriko du eguzkitakoak hautatzeko ordena. Esleipenik lortu ez dutenei automatikoki itzuliko zaie fidantza.



>>> ESLEIPENA >>> martxoaren 21etik apirilaren 29ra

Zozketa amaituta eta zozketaren ordenari jarraituz, sarituek eguzkitakoa aukeratu ahal izango dute inskripzioan hautatutako hondartzaren barruan. Eskatu dituzten aukeretako bat hautatzeko posibilitatea izanik, uko egiten diotenek galdu egingo dute utzitako fidantza.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Esleipena udalaren webaren bidez egingo da, eta bertara sartzeko erreserba-zenbakia beharko da beti. Web-orriak ikusizko sistema bat izango du, eta bertan plano bat erakutsiko da, non eguzkitako libreak eta okupatuak kolore desberdinetan agertuko diren, eta eskatzaileek libre gisa agertzen direnak soilik aukeratu ahal izango dituzte.

Zozketan ezarritako hurrenkeraren arabera esleituko dira eguzkitakoak. Eguzkitakoa aukeratzeko lehen eguna jarriko da, eta zozketatik ateratako zerrendako 60 pertsonak bakarrik izango dute aplikaziora sartzeko aukera, goizeko 09:00etatik aurrera. Egun horretatik aurrera, larunbatetan eta jaiegunetan izan ezik, egun bakoitzean, izena emandako hurrengo 60 pertsonak izango dute aukeratzeko eskubidea. Egun horretatik aurrera, eguzkitako bat aukeratu ahal izango dute, edo, nahiago badute, beranduago. Hala ere, argi geratuko da zenbat eta beranduago aukeratu, orduan eta posibilitate gutxiago izango dituztela.

Fase horren ondoren, eguzkitakorik gelditzen bada, maiatzaren 2tik 8ra bigarren fase bat irekiko da, eta, bertan, esleipena lortu ez duten pertsonak sartu ahal izango dira, beren aukera egiteko. Horrela, toloak, eguzkitakoak eta karpak agortu arte.

Eguzkitako bat lortu duten pertsonak uko egiteko eskubidea izango dute, baldin eta ukoa idatziz eta erregistroan eskatzen badute, udaldia hasi baino lehen (ekainaren 1a), baina, inola ere, ez zaie fidantzaren zenbatekoa itzuliko.